



Nik, Martin Iparragirre Mujika jaunak, Ezkio-Itsasoko Udaleko idazkari-kontuhartzailea naizen honek,

**ZIURTATZEN DUT:**

Ezkio-Itsasoko Udaleko Gizarte Langile lanpostua egonkortzeko prozesua dela eta, Epai mahaia 2023ko apirilaren 24an bildu zela, eta behin behineko emaitza eman zuela data horretan, Ezkio-Itsasoko udaleko web orrian 2024ko maiatzaren 9an argitaratutako aktan jasotzen den bezala.

Iragarkia, oinarrietan xedatutakoaren arabera, 10 lanegunez egon dela jendaurrean, hau de maiatzaren 23a arte, eta epe horretan ez dela inongo erreklamaziorik aurkeztu, beraz balorazioa behin-betiko izaeraz onartutzat eman behar dela, eta ondorioz Ezkio-Itsasoko udaleko alkateari, puntuazioaren arabera zerrenda ordenatuta aurkeztuko zaiola.

Proposatutako hautagaiak, hau da Biotza Esnaola Edo andreak, 20 laneguneko epean, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dituela:

- 1.- Kargu publikoak betetzeko ezgaituta ez dagoela eta disziplina-espeditate bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik kendu ez dutela dioen adierazpena.
- 2.- Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasun-arrazoiren batean sartuta ez egoteraren adierazpena.
- 3.- Zerbitzu medikoek emandako ziurtagiri medikoa, oinarri hauen arabera dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen dituen.

Eta horrela jasota gera dadin, eta bere ondorioak sor ditzan, luzatzen dut alkate jaunak agindu eta ontzat emanik, EZKIO-ITSASON BI MILA HOGEITA LAUKO MAIATZAREN HOGEITA ZAZPIAN.

